

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Marixol Bolinaga Erostarbe

*Oñati,
Gipuzkoa
(1962)*

Aurkibidea



Biografia



Araozgo Beitti baserrikoa, aita bertakoa zuen eta ama ere auzokoa, Etxatxokoa ([Frantziska](#)). Bi mutil eta neska bat ziren, baina mutiletako bat umetan hil zen. Marixoli gurasoek ez zioten hika egin. Auzoan ikasi zuen, lagunekin. [Ingo xonau!](#) proiekturako, Oñatiko emakumeen hika jasotzeko egindako elkarriketa, [Irati](#) alabarekin batera. Amari hika egiteko eskatu dio Iratik. Bi alaba ditu.

Zintak

ONA-272

- **Proiektua:** Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- **Elkarriketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-03-01
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Gurasoek ez diote Marixoli hika egin; auzoan ikasi du

- **Erref:** ONA-272/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:32. **Bukatu:** 00:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Ez du hitanoa etxean jaso. Gurasoek egin dute beren senideekin eta auzoan ere entzun du. Zaharragoei hika egitea oso gaizki ikusita egon da. Osaba mutilzahar batzuek bere anaiari hika egin izan diote, baina berari ez. Koadrilakoekin egiten du hika Marixolek, eta auzoan ikasi zuen. Orain alabari egiten dio hika, ikasi dezan.</p>

2. Ama-alabak elkarrekin hika, ikasteko

- **Erref:** ONA-272/003
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:03:47. **Bukatu:** 00:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Alabari hika egiten hasi da, eta Iratik baimena dauka amari ere hika egiteko. Konturatu ziren neskek ez dakitela, eta mutilek ere ez noka. Iratik ez zekizkien nokako formak, eta erakusteko eskatu zion amari.</p>

3. Marixolen gurasoen ustez hika egitea "gogorra"

- **Erref:** ONA-272/004
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:05:39. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Marixolen gurasoei "gogorra" iruditzen zaie alabari hika egitea. Iratik aitajunari egiteko eskatu zion, eta hark ezetz. Marixolek ez dauka pertzeptzio hori: berari gustatu egiten zaio. Hori bai, haserre dagoenean, demanda egiteko erabiltzen du gehien berak.</p>

4. Hika eremu intimoan bakarrik momentuz

- **Erref:** ONA-272/005
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Zaila egiten zaio zuka egitetik hika egitera igarotzeko pausoa. Denbora gutxi daramate, eta ez dira oso konstanteak izan. Bakarrik daudenean ez dute egiten, gainera: eremu intimokoa da.</p>

5. Noka bultzatzeko zer egin daitekeen

- **Erref:** ONA-272/008
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:15:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hika ikastaroak eta tertuliak antolatuz gero, Iratik dio animatuko litzakeela. Ez zaio erraza iruditzen nesken artean modan jartzea, bere inguruan inork ez dakielako noka. Aditz-taulak ere ondo etorriko litzaizkieke, zalantza dutenean erabiltzeko.</p>

6. Gaztelaniaz egiteko nahikoa lan

- **Erref:** ONA-272/010
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:15:41. **Bukatu:** 00:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Hikaren galeraren arrazoiak. Mutilek jarraitu egin dute erabiltzen, baina ez daki neskek zergatik utzi zuten. Garai baten gaztelania zen modako hizkuntza kalean. Marixolek ez zekien erdaraz eskolara joaten hasi zenean. Iratik ere euskaraz egin du bizimodua.</p>

7. Kaletartze-prozesuak eragina hitanoaren galeran?

- **Erref:** ONA-272/011
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:18:39. **Bukatu:** 00:21:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Hitanoa baserriarekin lotzen da, eta kaletartze prozesuak eragina izan dezake galeran. Araoztarrek mantendu dute beren artean, baina seme-alabei ez diete hika egin. Baserritarra izateagatik konplexurik ez du izan sekula Marixolek.</p>

8. Neska eta mutil elkarrekin joaten ziren tabernetara

- **Erref:** ONA-272/013
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Sozializatzeko moduak ez dira berdinak izan neskentzat eta mutilentzat. Bere amaren sasoian emakumeek finak izan behar zuten, ez errebeldeak... Marixolek ez du hori bizi izan. Neska eta mutil ekarrekin joaten ziren tabernetara.</p>

9. Eskolan ia dena zuka

- **Erref:** ONA-272/014
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Eskolan euskaraz ikasteko aukera etorri zenean, euskara ondo ikasiko dutela pentsatu zuten gurasoek. Eskolan zuka erakusten da, hika oso gutxi. Iratik ikastolan Oñatiko euskara ez du irakasgai moduan ikasi, baina 6. mailararte Oñatiko irakasleak izanda bai jaso du. Joxeina irakasleak hika egiten zien.</p>

10. Hutsunea dago nokaren kasuan

- **Erref:** ONA-272/015
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Oñatin hitanoaren osasuna mutilen kasuan ona dela uste dute, baina neskena ez. Mutilek asko darabilte. Nesken kasuan hutsune bat dago. Amonak noka egiten du lagunekin eta ahizparekin.</p>

11. Hitanoak konplizitatea ematen du

- **Erref:** ONA-272/019
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Identitate-marka bat da hitanoa Iratirentzat. Beste lotura bat sortzen da, konplizitatea. Ez du uste bere adineko beste neskek hiak dakitenik, baina ez du galdetu. Bere bi lagunek (mutilek) ez dioete noka egiten, ez dakitelako.</p>

12. Duela urte eta erdi hasi ziren elkarrekin hika egiten

- **Erref:** ONA-272/021
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Zer sentazio hika egiteak? Gertutasuna, konfiantza, lotura bat... Duela urte eta erdi hasi ziren hika egiten, Irati Batxi-2n zegoela.</p>

13. Ingo xonau!

- **Erref:** ONA-272/025
- **Iraupena:** 0:00:04. **Hasi:** 00:40:03. **Bukatu:** 00:40:07

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

Laburpena:

Ingo xonau! esaten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com